

## **Funtsezko elkarteak**

Produktua sortzeko hainbat enpresekin kontaktatu beharko dugu, gure produktua sortzeko materiala lortzeko. Adibidez:

**-Poltsa ekologikoen fabrikatzaileak:** Material iraunkorrak (kotoi organikoa, adibidez) erabiliz poltsak sortzen dituzten hornitzaileak, ingurumena errespetatzen duten fabrikazio-praktikak erabiltzen dituztenak.

**-Material birziklatuen hornitzaileak:** Gure enpresak birziklatutako materialez egindako poltsak eskaini nahi dituenek, material horiek hornitzen dituzten hornitzaileekin harremanak izan beharko genuke.

**-Inprimatzaileak eta diseinatzaile grafikoak:** Kalitate handiko inprimaketa-zerbitzuak eskaintzen dituzten hornitzaileak behar izango ditugu, poltsak enpresaren logotipoarekin edo bestelako diseinuekin pertsonalizatzeko.

**-Etiketen hornitzaileak:** Etiketa pertsonalizatzeko eta marka-irudia egiteko.

**-Logistika eta garraioa:** Zerbitzu logistikoen eta garraioaren hornitzaileak behar ditugu, produktuak fabrikatik biltegiara eramateko eta azkenik, bezeroen eskuetara ailegatzeko.

**-Teknologia hornitzaileak:** Irakurtzaile QR-a eskuratzeko horrelako produktuak eskaintzen dituen enpresekin kontaktatu beharko dugu.

## **PRODUKTUAREN MATERIALA**

**-Telazko poltsa:** Hau lortzeko Bergarako Telaetxe enpresarekin kontaktatuko dugu.

**-QR irakurgailua:** Hau lortzeko amazonetik eskari bat egingo dugu.

**-Telazko boltsa dekoratzeko eta logoa jartzeko:** Akort enpresarekin kontaktatuko dugu boltsaren dekoraziorako.

## **GURE POLTSA**

Ikusi daitekeenez gure poltsa nahiko material gutxiz sortutakoa da baina material gutxiz sortua izanda ere oso baliagarria da, gainera guztiz ekologikoa da gure poltsa. Gure bezero gehienak 16 urtetik gorakoak izango direlakoan gaude, urte horretatik aurrera erosketak egiterakoan elikagaietan gehiago ohartzen garelako.